

2016ko deialdia diru laguntzen ekintzaileei laguntzeko enpresa-idea bat garatzeko

A) ENPRESA-IDEA GARATZEA: • PERTSONA ONURADUNAK

Ekintzaileak, negozio-idea bat izanik, jardueraren edozein arlotan, berau aztertu eta garatu nahi dutenak, berariazko arduraldi erregimenean, erakunde laguntzaileak ikuskaritzapean eta tutoretzapean. Lanbide-EEZk aurretiaz emango du eginkizun horietarako baimena.

• BALDINTZAK:

EAEEn erroldatuta egotea eta benetan bizitzea. Informazio xehatua

- NANaren fotokopia eta errolda-ziurtagiria, edo datu horiek elektronikoki egiaztatzeko baimena.

Langabeak izatea eta Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egotea.
Erakunde laguntzaile baimenduetako baten aholkularitza-prozesuan sartuta egotea.

Erakunde laguntzailearen ziurtagiria, bai **parte-hartzea**, bai eta laguntzeko eta/edo tutoretzaz arduratzeko planean aurreikusitako jarduerak **egiaztatzen** dituen.

Enpresa edo negozio berri bat edozein jarduera-arlotan garatzeko ideia bat izatea.
Ekonomia-jardueren gaineko zergan eta langile autonomoen araubide berezian lehendik alta eman ez izana.

Zinpeko deklarazioa, ekonomia-jardueren gaineko zergan eta langile autonomoen araubide berezian lehendik alta eman ez izana aitortzen duena.

Enpresa-idea aztertzeko eta garatzeko zereginetan arduraldi eskusiboan jardutea

Erakunde laguntzailearen egiaztatzea

Enpresa-idea sortze eta garatze aldera deialdi honen kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek definitutako aholkularitza emateko eta laguntzeko jarduera guztietara bertaratzea.

Sustatzaileek laguntzeko eta/edo tutoretza jasotzeko prozesua behar baino lehenago bertan behera utziz gero, jasotako diru-laguntza osoa edo haren zati bat itzuli beharko dute.

Erakunde laguntzailearen ziurtagiria

Helburu bererako beste laguntzarik ez jasotzea.
Lanbide-EEZk 2013, 2014 eta 2015 ekitaldietarako eginiko ekintzaileentzako laguntza-deialdietan aurreikusitako laguntzarik jaso ez izana. Informazio xehatua

Zinpeko aitorpena, Lanbide-EEZk 2013, 2014 eta 2015 ekitaldietarako eginiko ekintzaileentzako laguntza-deialdietan aurreikusitako laguntzarik jaso ez izana adierazten duena.

Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren ziurtagiriak, zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela egiaztatzea Informazio xehatua

Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren ziurtagiriak, zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela egiaztatzen dutenak. Dokumentazio hori ez da aurkeztu behar izango baldin eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari hori egiaztatzeko baimena ematen bazaio.

Laguntzen onuradunek erakunde laguntzailean aurkeztu beharko dute, laguntza- eta/edo tutoretza-lanak amaitu eta hurrengo hilabeteetan, laguntza jaso duten epean enpresa-proiektuaren bideragarritasuna aztertzeko eginiko lanen memoria, baita proiektuaren bideragarritasunari buruzko txostena ere. Laguntza eta/edo tutoretza-lanak egin dituen erakundeak sinatu beharko du dokumentazioa. Informazio xehatua

Egindako lanak zehazten dituen memoria.

Tutoretza-prozesua bertan behera uzten bada hori amaitu baino lehen, jarduera eten den unera arte eginiko ekintzen memoria aurkeztu beharko da.

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK Eskualdeko Enplegu Planak egiteko eta egikaritzeko laguntzen deialdietan parte hartu izana. Deialdi horiek arautu ziren 2012ko maiatzaren 9ko Aginduaren bidez (EHAAn maiatzaren 23an argitaratua) eta Lanbide ̄ Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren 2012ko uztailaren 26ko erabakiaren bidez (Lanbideren zuzendari nagusiaren ebazpena, EHAAn abuztuaren 29an argitaratua). 2 urteko esperientzia ekintzaileei laguntza emateko eginkizunetan. Informazio xehatua

- Erakundearen ziurtagiria, laguntza-eginkizunetarako gaitasun teknikoari eta materialari buruzkoa. Esperientzia egiaztatu eta jardueraz arduratuko diren langileak zerrendatzen dira bertan.

- Proiektua, honako hauek jasotzen dituena: aholkularitza-prozesuetan egingo diren jarduerak; jarduera bakoitzean (ideiak/ekintzak) laguntza jasotzeko aurreikusitako pertsona-kopurua, eta sexuaren arabera, 25 urtekoak edo gutxiagokoak eta hortik gorakoak bereizita.

-Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren ziurtagiriak, zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela egiaztatzen dutenak. Dokumentazio hori ez da aurkeztu behar izango baldin eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari hori egiaztatzeko baimena ematen bazaio.

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinarazi behar zaizkio honako informazio hauek:

- **Helburu berberarekin** beste edozein administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatutatik **diru-laguntzak edo laguntzak jasoz gero**, horren berri ematea.
- Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako **edozein egoera aldatzen bada**, aldaketa objektiboa zein subjektiboa izan, horren berri ematea.
- Diruz lagundutako jardueren xedean edo izaeran **funtsezko eragina duen edozein gertaera** jakinaraztea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sozietate publikoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasita dagoen eta oraindik izapidetzen ari den edozein **itzultze- edo zehapen-prozedura** jakinaraztea.

Aurreikusitako epeetan diru-laguntza justifikatzen ez bada, emandako diru-laguntza guztia itzuli beharko da.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak lortzeko aukerarik ez dute izango diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzarekin zigor- edo administrazio-arloan zigortuta dauden pertsona fisikoek, eta horretarako ezgaitzen duten legezko debekuen eraginpean daudenek. Halakoetan sartzen dira otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, adierazitakoari jarraituz, sexu-diskriminazioagatik emandako zigor eta debekuak.

Onuradunei ez zaie esleitutako laguntzarik ordainduko, baldin eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo bere erakunde autonomoek emandako izaera bereko diru-laguntzengatik, zigor-prozedura batean edo diru-laguntzak itzultzeko prozedura batean sartuta badaude, eta prozedura horiek oraindik ere izapidetzen ari badira.

Erakunde laguntzaileek 30 egun balioduneko epea izango dute, ebazpena jakinarazten denetik aurrera, ekintzaileekin laguntza eta/edo tutoretza-lanetan hasteko. Hiru hilabeteko iraupena izango dute.

Sustatzaileek laguntzeko eta/edo tutoretza jasotzeko prozesua behar baino lehenago bertan behera utziz gero, jasotako diru-laguntza osoa edo haren zati bat itzuli beharko dute.

- Erakunde laguntzailearen ziurtagiria

2016ko deialdia enpresa-proiektu berriak abian jartzeko laguntzak

B) ENPRESA MARTXAN JARTZEA:

• **PERTSONA ONURADUNAK:**

Enpresa edo negozio berri bat ezartzeko bideragarritasun-plana duten **ekintzaileak**, eta proiektu hori abian jartzeko behar diren jarduerak egin nahi dituztenak, arduraldi eskusiboan, eta erakunde laguntzaile batek gainbegiratuta eta haren tutoretzapean, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak horretarako baimena aldeztu aurretik emanda.

• **BALDINTZAK:**

- EAEn erroldatuta egotea eta EAEn benetan bizitzea.

NANaren fotokopia eta errolda-ziurtagiria, edo datu horiek elektronikoki egiaztatzeko baimena.

- Langabeak izatea eta Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egotea.
- Erakunde laguntzaile baimenduetako baten aholkularitza-prozesuan sartuta egotea.

Erakunde laguntzailearen ziurtagiria, bai **parte-hartzea**, bai eta laguntzeko eta/edo tutoretzaz arduratzeko planean aurreikusitako jarduerak **egiaztatzen** dituenak.

- Enpresa edo negozio berri bat ezartzeko bideragarritasun-plan bat izatea, dagokion erakunde laguntzaileak baliozkotua. Enpresa-jarduerak EAEn izan beharko du egoitza soziala eta fiskala, eta lantokiak ere bertan egon beharko du.
- Enpresa edo negozio berri bat ezartzeko bideragarritasun-plan bat izatea, dagokion erakunde laguntzaileak baliozkotua.
- Eskusiboki enpresa edo negozioa martxan jartzeko jardueretan aritzea.

Erakunde laguntzailearen egiaztatzea